

ESPAINIAKO LIBURUZAINEI ETA INFORMAZIOAREN PROFESIONALEI ZUZENDUTAKO ETIKA KODEA

*Espainiako Dokumentazio eta Informazio Elkartearen (SEDIC) Etika Profesionalari buruzko Lantaldeak egina, eta Artxibistika, Bibliotekonomia, Dokumentazio eta Museistika Elkartearen Federazioak (FESABID) onartua.
(Toledo, 2013-5-23)*

HITZAURREA

Informazioa gizartearen funtsezko ondasuna da.

Informazioa eta dokumentazioa kudeatzeaz arduratzen diren pertsonak eta erakundeek kontziente izan behar dute hartua duten erantzukizunaz, beren ekintzek gizartean, ekonomian, kulturean, politikan eta ingurumenean duten eragina dela eta. Izan ere, informazioaren eta dokumentazioaren hautaketan, antolaketan, zaintzan eta zabalkundean funtsezko rola jokatzeko dute; informazio eta dokumentazio horren erabilera ziurtatzen dute lege, administrazio, informazio, kultur, zientzia eta enpresa arloko xedeetarako; eta gainera, erakundearen funtzionamendua hobetzen, memoria kolektiboa zaintzen eta hezkuntza, prestakuntza, ikerketa eta kultura zabaltzen laguntzen dute.

Informazioa eta dokumentazioa kudeatzen duten pertsona eta erakundeak hainbat kultur, administrazio eta ekonomia alorretan ari dira lanean.

Lanharremanen aniztasunak eta administrazioaren hizenpresaren arloko menpekotasunak ere ezinbestekoagoa egiten du jokabide araubatzukeraz eta, arau horiek gidatuta, erabakiak hartzea, dilema etikoei aurre egiteko moduz haztea eta izan litezkeen interes gatazka kebaztealari ingurunean, bai indibidualki bai instituzionalki.

Esperientzia trukea sustatzen eta liburutegiak, dokumentalistak eta informazioaren beste profesional batzuk prestatzen diharduen elkarteak den aldetik, SEDICek informazioaren munduan etika eta zintzotasuna sustatzeko konpromisoa hartzen du bere gain. Etika profesionala, zintzotasuna, inpartzialtasuna, zuzentasuna eta besteenganako errespetua, bertute ez ezik, SEDICeko kide bakoitzak bazkideen aldetik espero dituen tasunak ere badira.

Informazioaren profesionalen kasuriko elkarte espezializatua den aldetik, balio eta balio eta helburu multzo garrantzitsuak definitzen du SEDIC. Honako hauek dira xedea:

- Informazioak eta dokumentazioak garapen ekonomiko eta zientifikorako duten garrantzia norainokoa den zabaltzea, teknologien eta informazio iturrien erabilera bultzatuz.
- Lan merkaturako sarbidea eta kontaktua errazteko, besteenganako errespetuz, zuzen eta zintzo jardutea, eta horretarako, eskaintzen eta eskaeren

arteko zubiak eraikitzea eta profesionalen hautaketan enpresak orientatzea, lan poltsa oso bat haien esku utziz.

- Asoziazionismo profesionala sustatuz munduko aniztasuna eta elkar ulertzea babestea eta profesionalen eta beste herrialde batzuetako, eta bereziki Europar Batasuneko kideen artean nazioarteko harremanak akuilatzea.

- Profesionalen arteko lankidetzak sustatzea eta, horretarako, bere kideen eta FESABIDen (Espainiako Artxibistika, Bibliotekonomia eta Dokumentazio Elkartearen Federazioa) dauden beste elkarte batzuetako kideen arteko jarduerak koordinatzea.

- Herri Administrazioaren eta jarduera saiarekin loturiko erakundeen aurrean bere kideak ordezkatzeko; eta elkarte, konferentzia eta nazioarteko topaketetan ere ordezkatzeko zeregin horibetetzea.

.I. kapitulua. DEFINIZIOA

SEDICen kode deontologikoa gida bat da, ezagutza espezializatua eta araudi tekniko nahiz legezkoa osagarri egiten dituen, jardute profesional arduratsu eta kalitatekoa orientatzeaz gainera. Gizartearen eta lanbidearen beraren bilakaeraren fruitua da, printzipioei eta balioei buruzko hausnarketa bat. Printzipio eta balio horiek kolektibo profesionalak, esperientzian oinarrituz, onartutako arau multzo batean adierazita daude.

II. kapitulua. HELBURUAK

Zehaztea: lanbidearen printzipio eta balio espezifikoak zehaztea.

Erakustea: informazioa eta dokumentazioa kudeatzen duten pertsonak beren ardurapekoa den eta haiengandik espero izatekoa den zeregin ekonomiko eta profesionalean jarraitzen dituzten balioen bidez, herritar guztiei kalitate profesionaleko irudi bereizgarria erakustea.

Sendotzea: talde bateko kide izatearen sentimendua sendotzea eta, horretarako, profesionalen artean informazio eta esperientzia trukea bultzatzea, bai indibidualki, bai elkargo eta elkarte profesionalen artean.

Eskaintzea: erreferentzia moraleko esparru bat eskaintzea, gehiegikeria, mutur sartze, dilema eta balio gatazkarik gertatuz gero, bertara jotzeko.

Sortzea: gizartearen konfiantza fluxu bat sortzea, pertsona osoz osaturik dagoen eta informazio zerbitzuen hornikuntzan aditua den kolektibo profesional honenganako.

Sustatzea: kolektibo profesionalean hausnarketa sustatzea, bai gizarteak, baliabideek eta zerbitzuek planteatzen dituzten ezusteko egoerei eta arazoei

buruz, bai errealitate horri aurre egiteko jarraitu beharreko balioetan oinarritutako erantzunari buruz.

III. kapitulua.APLIKAZIO EREMUA

Kode honek eremu publikoan nahiz pribatuan lanean dabilen SEDICeko bazkideen jardunbide profesionala gidatu behar du; gainera, informazioa eta dokumentazioa kudeatzen duten erakundeetan diharduten beste profesional batzuk orientatzeko baliagarri izatea nahi genuke, lehendik ere hor dauden beste kode deontologiko batzuk alde batera utzi gabe.

IV. kapitulua.INFORMAZIOAREN ETA DOKUMENTAZIOAREN PROFESIONALAREN PRINTZPIOAK ETA BALIOAK

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala lanbidearen funts etikoa definitzen duen agiria da.Horra hor, batez ere, 1etik 3ra bitarteko artikulua, pertsonaren askatasunari, berdintasunari eta duintasunari buruzkoak; 18. eta 19. artikulua, pertsonak duen adierazpen nahiz iritzi askatasunari eta informazioa eskuratzeko askatasunari buruzkoak; eta 26. eta 27. artikulua, non komunitateen hezkuntzarako eta kultur bizitzarako eskubidea eta jabetza intelektualaren eta egile eskubideen babesa jasotzen diren.

SEDICen kode deontologikoak bere egiten ditu *Adierazpenean* jasotako printzipioak, eta lanbideari dagozkionetan sakontzen du.

Hona hemen SEDICen kode deontologikoaren oinarria osatzen duten printzipio etikoak:

Autonomia: gizakien autonomia moralean eta duintasunean sinestea.

Justizia: neutraltasuna eta inpartzialtasuna norberaren aurreiritzien gainetik jartzea.

Erabilgarritasun soziala: helburuak zehaztean eta erabakiak hartzean gizartea ase nahia.

Erantzukizun soziala: gizarte hobe bat eraiki nahia, bai baliabideen erabileran, bai giza kapitalaren prestakuntzan bai ingurumenarekiko errespetuan.

Konfiantza: pertsona, erakunde eta profesionalentzako ingurune fidagarri bat ezartzea.

Zerrendatutako printzipioei jarraituz, informazioa eta dokumentazioa kudeatzen duten profesionalak honako balio hauek aplikatuko dituzte beren jardunean:

1. ASKATASUN INTELEKTUALA

Pertsonen adierazpen, informazio eta ezagutza askatasun osoa defendatuko dute.

Askatasun intelektualaren muga bakarrak, bada, Nazio Batuek adierazitako giza eskubideak errespetatzearen ondoriozkoak izango dira.

2. PRIVATUTASUNA ETA KONFIDENTZIALTASUNA

Beren jardunean, sekretu profesionala bermatuko dute, informazio eta dokumentazio zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen datu pertsonalen konfidentzialtasuna babesteko, esparru juridikoak zehazten dituen mugak bakarrik kontuan hartuz.

Pribatutasuna zainduko dute, eta intimitate pertsonala eta familiarena ez ezik, lan jarduera orotan pertsonen irudia ere errespetatu egingo dute.

3. INFORMAZIORAKO SARBIDEA

Garapen ekonomiko, sozial eta demokratikorako bitarteko batez ari baikara, informazioa eskuratzeko ahalik eta biderik onena eskainiko dute; hala, sarbideari, erabilerari eta zabalkundeari buruzko araudia erabiltzaileen esku egongo da.

Herritar guztiei baliabideetarako sarbide libre eta parekidea bermatuko diete, genero, ideologia, hezkuntza, kultura, politika edo ekonomia arloko arrazoiengatik, edo beste edozein egoera nahiz inguruabar pertsonal edo sozialengatik, inolako murrizketarik egin gabe.

Egoera okerreanean dauden kolektibo eta norbanakoek informaziorako sarbidea izatea zainduko dute bereziki.

Ezagutzarako eta informaziorako eskubide unibertsala babestuko dute, informazio eta dokumentazio zerbitzuen erabiltzaileen informazio beharrei egokitutako informazio eguneratu, askotariko, fidagarri eta orekatua eskainiz.

Baliabideak hautatu, eskuratu eta ematean, gardentasuna bermatuko dute, eta informazioa tratatzeko orduan, informazio hori eskuratzea erraza izango dela kontuan hartuko da.

Informazioa eskuratzeko eskubidea bermatzeko, sarbide irekiko ekimenak sustatuko dituzte, eta esparru juridikoak, erakundearen jarduera ekonomikoak eta zaintzaren defentsak ezarritako mugak baino ez dira kontuan izango.

Gobernu irekiaren printzipioak babestuko dituzte, eta hala, gardentasunaren, parte hartzearen eta zintzotasunaren bidez, herritar orok arakatu ahal izango du administrazioen eta negozioen funtzionamendua.

Alfabetatze informazionala sustatuko dute eta prestakuntza emango dute baliabideen bilaketa eta erabilera egokiaren inguruan, baliabideok banatzen dituzten euskarri teknologikoen inguruan eta informazioaren ebaluazioaren inguruan, erabiltzaileek, modu autonomo eta arduratsuan, behar duten informazio guztia atera ahal izateko.

Emandako informazioaren eta dokumentazioaren osotasuna eta egiazkotasuna zainduko dute.

Deontologia profesionalaren aurkakoa izango da edozein produktu kontsultatu edo eskuratzeagatik ordainik eskatu edo onartzea, kasu hauetan izan ezik: erakundeak ordainen bat egotea arautua duenean eta informazioaren salmentarekin lotutako jardueraren batean diharduten enpresa pribatuez ari garenean.

4. EGILE ESKUBIDEAK ETA JABETZA INTELEKTUALA

Indarreko legeei jarraiki, egile eskubideak eta jabetza intelektuala babestuko dituzte.

Egile eskubideari salbuespen eta mugapenak ezartzea sustatuko dute, baldin eta onuradunak liburutegi, artxibo eta dokumentazio zentro publikoak eta irabazi asmorik gabeko erakundeenak badira.

Informazioaren egiletza eta jatorrizko iturria berariaz identifikatu eta jasoko dute.

Beren erakundeetan egile eskubidearen ezagutza zabalduko dute, eta plagioak dakartzan lege ondorioen eta ondorio intelektualen berri emango diete bai herritarrei bai kideei.

Gardentasuna eta gobernuen zein herri administrazioen informaziorako sarbidea hobetzera bideratutako politikak bultzatuko dituzte.

5. PROFESIONALITASUNA

Konpromiso intrintsekoa hartuko dute hezkuntzaren, gizartearen eta ekonomiaren garapenarekin, ikerketa eta berrikuntzarekin, orainaren eta iraganaren ulermenarekin eta geroko belaunaldientzako ezagutza osoaren zaintzarekin.

Lanbidea duintzen eta aurrerabidean jartzen lagunduko dute, baita beren jarduera ekonomikoaren ezagutza soziala pizten ere.

Irizpide profesional independente, bidezko eta objektibo baten alde egingo dute.

Jokabide zintzo eta zuzena izango dute, eta horrekin batera, baita goi mailako gaitasun profesionala ere.

Lan baldintza bidezko eta parekideak defendatuko dituzte, langileen lanaren maila edo lan harremana kontuan hartu gabe. Baldintza horien artean, aipagarriak izango dira sexu bereizkeriarik gabeko lansari berdintasuna, lan giro higieniko eta osasungarria eta kontratuzko harreman fidagarri eta segurua.

Informazioari eta dokumentazioari buruzko unibertsitate prestakuntza eta prestakuntza espezializatua sustatuko dute, gaur egun kalitateko zerbitzu berritzaile eta moderno batean biltzen diren espezializazio ezberdinak onartuz eta errespetatuz.

Ezagutzak, gaitasunak eta liburutegi, artxibo eta dokumentazio zentroein eragiten dieten arau teknikoak eta legeak etengabe eguneratuko dituzte; baita etengabeko prestakuntza ere, kudeaketa eraginkorragoa izateko eta herritarren artean informazioa ohiko bitartekoen bidez zabaltzeko (argitalpenak, internet, sare sozialak).

Profesionalek ezagutzak elkarri pasatzea bultzatuko dute; horretarako, biltzar eta argitalpenetan esperientziak trukatzen lagunduko dute, eta beste kide eta hurbileko erakunde batzuekin lankidetzan jardungo dute.

Legeak, kideekiko harremanak eta sektore osoarekikoak errespetatuko dituzte, motibaziorako ingurune egoki bat sortuz. Katalogatu gabeko dokumentuak eta eskuratzeko zaila den informazioa bilatzeko orduan, lankidetzaren bereziki garrantzitsua izango da.

Asoziazionismoa sustatuko dute beren lan eremuan –kideen, herritarren eta erakundearen artean– eta bereziki Informazio eta Dokumentazioko ikasleen artean; gainera, erakunde profesionalekin elkartuko dira, horixe baita lanbidea indartu eta kohesionatzeko bide bat.

6. ERAKUNDEAREKIN LEIAL IZATEA

Erakundearen misioaren, ikuspegiaren eta helburu estrategikoen alde egingo dute, eta horiek lortzeko ahaleaginean parte hartuko dute.

Informazio konfidentziala errespetatuz eta erakundearen eskumeneko jardueretan parte hartuz, erakundeari leialak direla erakutsiko dute.

Erakundearen barneko kontuak ez dituzte jendaurrean zabalduko eta ez dute erakundearen irudi sozialari kalte egin liezaioketen jarduera nahiz komentarioetan parte hartuko jardunbide edo jokabide ez-legezkoak salatzen ez bada.

Erakundearen ondasunak zainduko dituzte, jardunbide komertzial zintzoak egingo dira eta marketin nahiz publizitate ekintzetan egiazkotasunez eta neurrian erabiliko da erakundearen izena.

7. ZAINZA ETA BABESA

Dokumentuak babestu eta zaintzearen ardura hartuko dute, kalte fisiko, hondatze eta lapurreten kontra. Era berean, dokumentuak osorik zaintzearen ardura izango dute, haien egiazkotasuna bermatzeko, egitateak ezkutatu edo frogak faltsutu litzaketen informazio eta datu manipulazio nahiz suntsiketak ekidinez.

Dokumentuak edozein euskarritan zaintzeko politikak gauzatuko dituzte, modu arduratsuan eta jatorrizko dokumentuaren osotasunari eutsiz, euskarri dokumental bakoitzerako ezarritako nazioarteko arauari jarraituz.

Informazioaren eta dokumentazioaren zaintza bermatuko dute, bai orainean bai geroan erabili ahal izateko.

8. ANIZTASUN KULTURAL ETA IDEOLOGIKOA ERRESPESTATZEA

Gutxiengoaren kultur ondarea errespetatu eta zainduko dute.

Kultur aniztasuna errespetatzea babestu eta sustatuko dute, munduan elkarrizketa eta elkar ulertzea hobetzeko bidea baita.

9. GIZARTE ERANTZUKIZUNA ETA INGURUMENA ERRESPESTATZEA

Zerbitzu iraunkorrak sustatuko dituzte komunitatearen eta gizartearen aurrerapenarekin konprometitutako lan giro profesional batean.

Lanbidearen irizpide etikoak aintzat hartuz, kanpo baliabideak erakartzeko ekintzak gauzatuko dituzte.

Ekipamenduak eta instalazioak egokitu egingo dituzte, baliabideak herritar talde guztiek, eta bereziki desgaituek, adin txikikoek eta hirugarren adinekoek, erabili ahal izateko.

Garapen iraunkorraren alde egingo dute; horretarako, teknologiak, baliabideak, ekipamenduak eta energia modu arduratsuan erabiliko dituzte, eta sentiberatzeko neurriak eta materialak berriz aprobetxatu eta birziklatzeko politikak ezarriko dituzte.

10. ZERBITZUAREN KALITATEA

Etengabe eta bikaintasunez hobera egingo duen zerbitzu bat emateaz arduratuko dira.

Beren jarduera profesionalaren edozein arlotan, jokaera pertsonal eta kolektibo zorrotza izango dute, beren jardute profesional osoan duten lehentasunezko helburua kalitatezko zerbitzu bat lortzea dela transmititzeko.

Giza baliabideetan, baliabide ekonomikoetan nahiz teknikoetan izan litezkeen murrizteek, erabiltzaileei zuzendutako arreta murrizketa edo gabeziak tarteko,

zerbitzuaren kalitatean zer ondorio izango luketen jakinaraziko diete beren arduradunei.

V. kapitulua. AZKEN XEDAPENAK

1.a- Indarrean egongo dela bermatzeko, SEDICen kode deontologikoa berrikusi egingo da aldizka, lanbidearen zer-nolakoetan eta ingurune sozial nahiz instituzionalean gerta litezkeen aldaketak txertatzeko.

2.a- Era berean, SEDICek bere bazkideen artean, erakundeetako arduradunen artean eta beste eragile batzuen artean zabalduko ditu kodean jasotzen diren balio eta printzipioak. Gainera, kodea ahalik eta gehien zabalduko du.

Honako hauek lagundu dute dokumentu hau idazten:

- Paz Fernández eta Fernández-Cuesta (Liburuzaina, Juan March Fundazioa. SEDICeko bazkidea). SEDICen etika profesionaleko lantaldearen koordinatzailea.
- Antonio Tomas Bustamante (Liburuzaina. Andaluziako Liburuzainen Elkarteko lehendakaria).
- Jorge Candas Romero (Dokumentalista. SEDICeko bazkidea).
- Vicent Gimenez Chornet (Artxibozaina. Valentziako Unibertsitate Politeknikoko irakaslea. Col.legiOficial de Bibliotecaris i Documentalistes de la Comunitat Valenciana elkargoko kidea).
- Margarita Pérez Pulido (Documentazioko irakaslea. Extremadurako Unibertsitatea. SEDICeko bazkidea).
- Montserrat Puyol Rodríguez (Dokumentalista. Associació de Bibliotecaris, Arxivers i Documentalistes de les Illes Balears elkarteko lehendakaria).
- Ana Reyes Pacios (Dokumentazioko irakaslea. Madrilgo Carlos III.a Unibertsitatea. SEDICeko bazkidea).

- Concepción Rodríguez-Parada (Departament de Biblioteconomia i Documentació departamentuko irakaslea. Bartzelonako Unibertsitatea. Col.legi Oficial de Bibliotecaris-Documentalistes de Catalunya elkargoko kidea).
- Josep Vives i Gràcia (Liburuzaina. Kataluniako Generalitatea. Col.legi Oficial de Bibliotecaris-Documentalistes de Catalunya elkargoko kidea eta SEDICEko bazkidea).